

hotsak

GARAZI ALBIZUA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

GARAZI ALBIZUA

Hotsak

ORTZAIZE

PRESTAKETAK

ZAKU: *izena*. Ehun edo paper latz eta gogorrez eginiko zorroa, gehienetan handia eta sakona, goialdean itxi daitekeena. Gardena eta pisutsua. Sorbaldan bermatu ohi da. Leku edo habia eginez. Bakoitzaren mugidak bazkatzen ditu, hiru edo lau aldiz, egunean, konkorr bilaka daiteke, garau edo buruko mina. Inork ez du ikusiko. Eta halere, esku artean har daiteke, forma eman eta bota. Beste bati pasa, bestearena hartu, elikatu, sorbaldan ipini eta mendi bilakatu.

B dut begira. Malkoak. Ezpainak hozkatuta. Gorritzen ari da. Akaso, beldur izpi txiki batek zeharkatu dio begirada. Beharbada.

Ni isilik nago. Isilik eta haserre. Oso haserre, hitzak korapilatu zaizkit eztarrian, totelka ateratzeko mehatxuka. Ez ditut esango. Jan egingo ditut.

Ez dakit euskaraz haserretzen.

Askotan beldurtzen nau Bren eta nire arteko isiltasunaren pisuak. Zati bat kendu, horrela, eskuarekin harea hartu nahiko banu bezala, eta zakura sartu dut, hori ere gurekin eramateko oporretan.

Ortzaizera hamabost egun barru joango gara. Familia-opor literarioak dira, idazteko oporrak, ez dakit esaldiko oximorona ere zakuan sartu. Elkarri pasa ohi diogu Ek eta biok. Zakua diot, oximoronak ere bai, bikote arteko mugidak. Zakua, beraz, Eren eta nire arteko pilota da; batzuetan, Bk ere parte hartzen du jolasean, bost urte ditu, bere esku-hartzea beti da ezohikoa, ez arautua, nork sortuko du araua? Ek? Nik? Oporrek? —*Oporrak ondo pasatzeko dira. Oporrak deskonektatzeko dira. Oporrak onak dira*—.

Oporretan osatu nahi dut Mungiako isiltasun zauritua.

Zelan entzungo da herrian isiltasuna? Orain, ordenagailuan idazten nabilela, teklek markatzen diote oinarria; baita Bren errotuladoreak paperaren kontrako tarra-tarrak ere; Whatsappeko mezuak; *ama, ikusi, zer egin dudan! Aitatxu noiz helduko da?* hitzek; Thunderbirdera heldutako postek, eta leihoa itxi aurreko kotxeen zaratek.

Baita haizeak ere. Etxeko ikasgelaren leihotik gaztainondo erraldoi bi ikus ditzaket, aurreko isiltasun elektrikoa baretzeko kapaz dira, batzuetan. Ikasgela ere ez da beti horrela, Bren jolasek, Eren eta bion kiroletako tresnek, arropek, motxilek, biolontxeloak... lekua zanpatu diote, eta, halere, isilik, eta, halere, ikasgela.

Bk berriro hitz egin du, isiltasun beharrak gortu ditu hitzok, ez, ordea, musikaltasuna. Konturatu naiz, idatzitakoa irakurtzean, buruan nire ahotsaren doinua entzun dezakedala, Bren ahotsa berea da, propioa, baina mezuena? Digitalki heltzen zaizkidan letrek, doinua al dute?

Bi doinu mota bereizi ditut: emakume eta gizonen ahots estandarrek.

Mugikorraren pantailan irakurtzen ditudan elkarriketen soinua normatiboa da, ez dut disidentziarik asmatu, ezta eztulik, ezta lagun batzuek berezia duten ahots sakon edo lehorrik ere. Denak zeroak edo batak dira, dualismo digitalak agintzen du nire buruan.

Ahotsak grabatuko ditut, sortutako doinu mugatzaitetik haratago, entzuteko.

Hori ere zakura. Buruari bide hori jarraitzeko baimena eman aurretik, egonaldiaren xedeari heltzen diot: jakin nolakoa den haizearen hotsa Ortzaizen, nolakoa errekaarena, ea alderik duten Mungiako Butroiko uren zipriztinek eta bertakoek. Aztertu gure isiltasuna, ikusi gauza bera margotzen dudan buruan Mungian txori esaten dudanean edota Ortzaizen txori hitza idazterakoan. Bai B, bai E igualak asmatzen ditudan Mungian edo oporretan. Eta baita zakua ere.

Zakua betidanik egon da. Hau da, hizkuntzaren aurrekoa da. Hizkuntzarekin eman ohi diot hasiera nire barne historia ardatzari. Horren aurreko denbora nebulosa batek jan du. Aukera dut aztertzeko, ikertzeko eta ardatzaren hasiera beste nonbait ipintzeko, baina ez dut gogorik; horregatik, zakua nire nagiak sortutako nebulosaren garaikoa da, lengoaiaren aurreko izakia.

Zaku bat norberarena. Horrela dago ezarrita. Zamarekin dator. Beti. Zama horrek bi bide izan ohi ditu: zakuaren barnetik gorputzera erortzen deneko norabidea jarraiki egindako ibilbidea, eta gorputzetik kanpo, bizkar gainera, zakua bermatua dugun habiara emandako urratsak.

Zakuak, onddoen moduan, mizelio propioa du, gizartearen kontzientzia barrena hedatutako sare kilometrikoa da. Beraz, konektatzen ditu hainbat zama. Nahi izanez gero, kanpoan baina lotuta dugun pisutariko bat gehi diezaiokegu lepo ondoko konkorrari. Izan ere, zakua erraldoia da, ikusezina izateagatik nahi beste leku okupa dezake. Familian, berehala, loditzen da. Zakua eramango dut/dugu Ortzaizera. Ezinbestean.

II

ILUNTASUNEAN, KANTA

ILUNTASUN KANTA: *izena*. Iluna denaren nolakotasuna berrahoratu. Egunsentiko 4:35ean, oilarraren hotsen sail goibela. Egoeraren arabera, zeharrargia edo neutroi-izarra izan daiteke.

Oilarraren kukurruak esnatu nau, 4:35 dira. Iluntasuna erabatekoa da. Ez dakit sekula ikusi dudana horrelako belztasunik. Ukitu ahal dudala iruditu zait, eta ukitua izan naitekeela sentitu. Ez dut gerizperik antzematen inon ere ez.

B esnatu da, oihuka:

Ilunegi dago!

E gure alabaren gelara joan da. Gela oso handi batera, Mungian duen logelaren bikoitza edo. Inolako argitasunik gabe are handiagoa izan daitekeena, edo txikiagoa; izan ere, baliteke hor aurrean, zure parean, zerbait egotea. Ikusten ez duzun zerbait. Are gehiago: zuk ikusi ez baina zu ikusten zaituen zerbait.

Gogoratu naiz George Berkeleyren igarkizun ospetsuarekin: “Basoan, arbola bat eroriz gero, eta ez badago inor entzuteko; soinurik egiten al du?”. Oilarrak kukurru egingo balu, baina ez balego bizidunik entzuteko, lo jarraituko al genuke?

Mugikorraren argia antzeman dut toki batetik bestera. E argi txikiren bat bilatzen ari da, B berriro lokartu artean, tarte batez pizteko. Baina argi denak sendoegiak dira erabateko belztasunean.

Ohetik altxatu naiz ni ere. Sirenen kanten sorginkeriaren gatibu. Oilarraren abesti ilunak erakarrita. Beldurtia naiz; beraz, beldurrez itxi dut atea. Eta tentuz, kolperik eman gabe, heldu naiz leihorantz. Ez naizenez fisikaria, irudimenari bermea eman diot pentsatzeko gelako tenperatura eta nire gorputzaren tenperatura igualak balira, ez nukeela jakingo non bukatzen

naizen. Zein diren nire ertzak. Ez nintzatekeela kapaz izango gorputzaren mugaz jabetzeko. Modu bat litzatekeela, aurreiritzi guztiak baztertzeko, entzuteko. Idazteko.

Oreka puntua topatu behar dut, nik iluntasunean itzal berririk ez sartzeko, eta belztasunak ni ez amatatzeko.

Oilarrak berriro egin du kukurruku. Laster joko dute ezkilek. Lehenengo, bost dilin-dalan.

Ondoren, minutu batzuen ostean, berriro bost dilin-dalan. Doinua bikoiztua heltzen da, tarte baten aldeaz. Fisikaria ez naizenez baina zientzia fikzioa maite dudanez, pentsatu dut, akaso soinuaren eta argiaren abiaduraren kontu bat dela, gure planoak destolesteko aukera duela, Ortzaizeko etxe honetan, argi gabeko ganbaran; izateko aukerak mugagabeak direla.

Isildu dira kanpaiak baina kantatzen jarraitu du oilarrak. Mehatxuren bat antzemango zuen, ziurrenik. Animaliaren bat, akaso. Behar ez den doinuren bat. Usain bat. Normalean, ez dagoen giroa.

Oilategira begiratzen dut. Hormak banatzen gaitu, horma dagoelako. Nahiz eta ikusteko kapaz ez izan, imajinatzen dut hegaztiak begira ditudala. Nabaritzen dut argi lumaduna.

Ama, zeri kantatzen dio oilarrak?

Guri, bihotza.

III

UHINAK

ONDULAZIO: 1. *sentipena*. Arnastu bitartean, uhin forma hartu edo eman. Haizeak eraginda, azal erabilgarrian hedatzen dena. Batez ere, ume batek harri bat nonbaitera botatzean edo esku batek dilistak lapikora jaurtitzean, gorputzean hedatutako ikara, bi egoeren talkak sortua.

2. *bibrazioa*. Mugimendu periodikoa izan daiteke.

32 gradu inguru. Bidea eguzkitan. Oinez, etxetik zazpi minutu. Errekara heldu aurretik, zuhaitzak. Oihana. Ezin da kanpatu, seinalea, debekua. Bizidun formak lerrotzeko araua.

Laka errekan gaude.

Elkarriketak moztan dabilela diotsat Bri. Ez aztoratzeko urik, mesedez. Urak haizearekin hitz egiten duelako, haizeak lagunduta egiten duelako aurrera, belarra, hostoa, buztina... Guztia da elkarriketa horren parte. Gu, ordea, ez.

Ondo iruditu zaio; halere, segidan pare bat harri aukeratu eta errekarara jaurti ditu.

Gure ondoan, familia bat egon da: gizon eta emakumea, bi alaba; biak ilehori txirikordadunak.

Harriak uretara bota dituzte, harriak uretan salto eginaraziz, hiru edo lau jauzi, urperatu bitarte.

Bk bakarrean hondoratu ditu harri denak.

Gero eta gehiago hurbildu zaie, jakin-minak gidatua. Nik beste alde batera begiratu dut, inspirazio bila nagoela argudiatuz. E saiatzen da gure alabaren kuriositatea —frantsesez hitz egiten dute? Baina ez dakite euskaraz? Zelan egiten dute harria ez erortzeko guztiz? Horrela? — eta besteen intimitatea errespetatzeko balantza orekatzen.

Nik argazkiak egiten ditut. Soinuak grabatu.

Familia joan egin da.

Erreka gora goaz, ikertzero; dio Ek.

Bakarrik lotu naiz momentu batean. Idazlea eta bere isiltasuna. Idazlea eta natura. Argazkia egin diot adar bati, apenas hiru zentimetrok urruntzen dute ura ukitzetik. Zerbait apuntatu nahi dut kaieran. Tarte hori ulertu nahi dut. Zer idatzi? Egongo da ur horretan, harri horietan, hostoetan, beharbada, distantzia murriztuko duen bulkadarik? Idazketarik?

Samanta Schweblinek *Fever Dream* eleberrian hitz egiten du salbatze-distantziaren inguruan, bada neurri bat, omen, ama eta haurraren babesaren duena; hortik kanpo, ez dago deus egiterik. Adarra eta ura, idazlea eta ideia. Zenbat zentimetrok banatzen gaitu talkatik?

Ikusi, ama! B deika ari da. Presa moduko bat egin du. Harriekin lortu du putzu bat eratzea errekan. Eta, ikusi! Eroritako hostoak paratzen dira harritxoaren zuloetan!

Ek, bai, horrela presa sendotzen da.

Bk, ez ba, ura gorde da.

Bk hitz egiten jarraitzen du, oso ozen hitz egiten du; bihar etorriko gara eta presa handituko dut. Ziurrenik, bihar, ez da egongo; dio Ek. Bk, harritu moduan, begiratu dio: egongo da, zeren *nik* egingo dut.

Desatsegina egiten zait nire alabaren ahots tonuera. Ozenegia da.

Barneko zerbaitek dio ondo dagoela. Atsegina izatea ez ote den karga. Ez ote den horma gogor baten zirrikituak tapatzeko erreminta soila, horma sekula izan barik. Inertziak jarraituta beste norbaiten, *batzuen*, erronkak baliozkotzat jotzeko uhin talka sotila.

Ondulazio batek arautzen du gure arteko elkarrizketa. Imajinatzen dut λ , kalkulatu dut frekuentziaren zein neurritan —distantzian—, dagoen Bren hitzen soinua: goialdean, gehieneko balioan; non dagoen Eren eta bion arteko elkarrizketa isila. Baina bibrazioa neurtzeko tarteak izan aurretik, irrintziak: bi zaldi heldu dira errekarara, edatera. Begira geratu naiz. Eszenaz, frekuentziaz, ondulazioaz, guztiz aparte.

Hiru zentimetroko distantzian.

Etxera bueltan, Izaskun Graciaren poema batekin gogoratu naiz. Beharbada, egonaldi literario-familiarrak lortuko du hosto zahar/ezkur/gaztaina baten azal erdia probesturik txalupa bat egitea, presak harrotutako uretan blai egin dezadan.

hator

hator nire itsasontzira

islak ezin dira atera

ispilua lumaz bete dut eta

hator

eta eraiki nirekin itsasontzirako itsasoa

mila orriz egindakoa

uhinen aparra idatzirik gabeko orriak izango dira

orri zuritik berriro hasteko zipriztinak bota diezazkigunean

(IZASKUN GRACIA, Eleak eta beleak)

IV

NEKEA

FAMILIA: 1 *izena*. Senideen sailkapenean, ahaidetasunak aginduta, ondare bera dutenen izakien multzoa, ordenaren eta generoaren arabera mailakatua.

2. *emozioa*. Gehiegizko elkar hartzeak eragiten duen ahultasuna; horren ondoriozko egoera.

3. *izena*. Arazoa, buruhaustea, zailtasuna.

4. maiztasun neurria. *Maitasuna*.

Dendariarekin begirada gurutzatu nahi dut. Ezinezkoa da. Haren jomugak pertsona oro zeharkatu du. Turista bat. Beste turista bat. Eskaera doinuak arrantzatu dio arreta. Erdipurdikoa. Ezpainak mugitu ditu burua biratu gabe. 15 euro dira. Ondoko turista batek beste zerbait galdetuko dio.

Edo akaso gauza bera. Eta hurrengo batek ere antzera.

Sartuko gara denda horretara?

Ez. Merkataritza-gune batean nola, amak Donibane Garaziko dendak miatzen ditu.

Baina bero naiz. Eta mantel ederrak dituzte, ezta? Ea, B, zatoz amamarekin.

Amak gutxitan, noizbait?, kasu egiten dio nik esandakoari. Ikusi ditut lokalean sartzen, behar ez dugun mantel bat erosteko. E eta aitarekin batera aurrera egin dut aldapan gora.

Belarrian habia egin du nekeak: turistekin talka egitean saihestean, arropak ukitzea. Galtzadaren kontrako urratsak, ezagutzen ditudan hitzak eta ezagutzen ez ditudanen marmarrak. Lastoa eta adarrak bailitza harilkatu ditu asperdurak. Aurikular ikusezinaren hasperenak markatu ditu dendariaren eta nire arnasketa erritmoak.

Galtzada harria. Erromesen botak. Orkatila bihurrituko duten sandaliak. Motxilak. Liztorrak. — Liztorren beldur naiz—. Hizkuntz zurrunbiloa.

Ba al da garagardorik hartzea herri honetan? Merkatu bat dirudi. Ez dut gustuko. Eta zure amak badaki non gauden?; Bagaude nonbaiten, akaso?; Hor goian izozkiak saltzen dituzte; Eta garagardoa? Baietz esango nuke; Bidali whatsapp bat amari; Baina ez dugu zitadela ikusiko?

Gurasoen bisitek beti behar dute aurretik zehaztutako estrategia planen bat.

E eta biok nire gurasoen bisitaren nondik norakoak aurreikusteko estrategia jokoaren afixak banatu ditugu (biok gara rol jolasen zale): Ek % 60 pazientzia, % 40 plan-egile gaitasuna du. Nik: % 50 ezaxolatasun gaitasuna, % 50 atsegintasun abildadea. Hara, maitasunez aseko hippya niretzat, komandante jatorra Erentzat.

Egunaren % 10 pasa da, eta ezaxolatasun neurriak behera egin du nabarmen. Nabarmenegi.

Donibane Garaziko bisita arazo bat bezala ikusi dugu Ek eta biok. Konpondu beharreko buruhaustea. Ohituta gaude. Nire gurasoen espektatibak eskuartean hartu, eta forma ematen diegu: mesedez, arren eta faborez, aukeratutako jatetxea ondo egotea, eguraldia egokia izatea, kalean gustura ibiltzea.

Donibane Garazik badu horretatik asko. Beharbada lasaitu eta egunak aurrera egitea baino ez dugu behar. Beharbada konturatu egunak aurrera egingo duela guk zerbait egin edo ez. Beharbada afixak apurtu eta izozkia hartu, leku garesti horretan, zapore artifizialduna.

Gauean, etxean, sofan, kaieran idazten nagoela, B etorri eta galdetu dit ea zeozer apuntatu dudan, jakin nahi du zerbaitek arreta eman didan. Turista mordoa eta dendari zombien kontuarena esan diot. Bitxi begiratu nau: ez duzu erreka —Beherobiko erreka— paseoko ariketa fisikoen txapelketan nik irabazi dudala apuntatu? Edo jan dudala zure postrea, zeren etorri dira bitxito bi —zazpi bat liztor— eta oihuka altxatu zara eta joan zara? Edo amama lo geratu dela banku batean eta bakarrik utzi dugula siesta botatzen eta gero argazkia egin diogula? Edo sartu garenean tren horian superzortea izan dugula zeren gidariarekin batera txakurtxo txiki bat supermegapolita kopilotu egon da, eta ez diot ulertu izena baina laztantzen egon naiz, nahiz eta zuk esan lehenengo galdetu behar niola gidariari, eta ez diot galdetu txiza egitera joan zarelako?

V

MINA

HILEKOA: Begiratu Euskaltzaindiaren hiztegian zer den hilekoa. Irakurri bi definizioak: 1. “iz. Emakumeak hileru umetokitik odola galtzea”. 2. “iz. Hileko saria, hilean kobratzen den soldata”. Lehenengo esanahia ulertzeko bi adibideei erreparatu: “Hilekoarekin egon”. Egoera bat, beraz. “Hilekoa nuelako”. Arrazoa. Nabaritu malaletxe bat. Arrazoi gabekoa. Nonbait, nekatutako haserrea ere badena. Zaharra delako. Gizateria beste.

Ez da gau ona izan. Mina. Hilekoagatik. Hilabetero mina dut. Berdin du Mungian zein Ortzaizen. Mina ere hilekoaren iragarle da. Aurreko bi egunetan edo, puztu egiten naiz eta egunaren argia apaltzen zait. Horrelako hautsez betetako tristura pausatzen zait gerrian eta begi-ninietan. Mungian, gauean, ohean, uzkurtuta esnatzen naiz. Altxatu, ibuprofenoa hartu, hazi-zakua mikrouhinean berotu, ohera bueltatu. Uzkurtu berriro, zakua hanka tartetik sabelaldera bermatu. E ohe ertzera bidali, espazioa behar dugu minak —eta etsipenak etahaserreak eta tristurak— eta biok. Arnasketa sakondu, loak hartzea erregutu. Ortzaizen, gauean harrapatu nau karranpak. Altxatu, ibuprofenoa hartu, hazi-zakurik ez dut ekarri. Logelatik atera eta hurbildu naiz kaleko atera, kristalezkoa da. Iruditu zait norbait dagoela zelatan. Pertsona beldurtia naiz. Oso. Halere, minak beldurra lausotu du. Argia piztu. Errezelak dira pertsona/mamu formadunak. Amatatu argia. Iluntasun gotortuak busti nau. Oilarraren kanta entzun nahi dut. Non dago oilarra? Arnasketa sakondu, eskuekin lagunduta topatu berriro oherako bidea. Sartu izara azpian, E ohe ertzean dago gurea baino handiagoa den ohe batean. Handiegia. Gerturatu Eren sorbaldara.

Goizean, euria ari du. Etxean lotu gara, B marrazkiak egiten eta ni irakurtzen, E Haltzamendira igo da. Irakurtzen nabilen eleberrian azpimarratu dut: “[...] Maeterlinckek dio: Sokrates ateratzen bada etxetik gaur, jakintsu bat aurkituko du atalasean. Judas ateratzen bada gaur, Judasena

egitera eramango dute bere urratsek. Bizitza orok ditu egun asko, egunez eguneko segida. Geure buruetan barrena aurkitzen ditugu pasaeran lapurrak, mamuak, erraldoiak, agureak, gizon gazteak, emazteak, alarguntsak, koinatuak, baina betiere geure buruarekin egiten dugu topo [...]”.

Horrelako determinismo literario filosofikoak hondoratu nau sofán. Ez dut liburua itxiko. Joyce da. Esan diot nire buruari: ikusi zelan deskribatu dituen pertsonaiak. Jarraitu apur batean. Baina patuak eta emakumeen izaerak gizon jakintsu —*jenio*— horien literaturan, are eta gehiago bizkortu dute nire tristura/egoera/arraziaren herdoiltze abiadura.

Hilekoarekin nagoenean, malaletxea bustitzen zait adurrean, nonbait. Beraz, esaldiak hoztuta ateratzen zaizkit. Zaizkigu. Bilatzen ditut hilekoaren akordeak hemen eta Mungian: iruzurti-sindromearen erritmo baxua (diseinu grafikoa ikasi duzu, egin logoak, zelan emango duzu zuk hitzaldirik), edertasunik ezaren kortxea arinak (lodia, ile urdindua, azal zimurtua), ameskeriaren konpas hutsalak (beka irabaztekotan, saria jasotzekotan, liburua saltzekotan). Egunean zehar, topatu dut tripako kanta.

E menditik bueltatzean: Bo, ze polita! Gainera, igo aurretik, laborari bat behien larrera heltzen ikusi dut, txekortxoak txakurra ematen zuen! Agurtzera gerturatu zaio, kontent-kontent! Bri kontatu behar diot!
Ni: Txekorra haragirako izango da.

Arratsaldean, nahiz eta eguraldiak hobetu duen, etxean lotu gara. Erekin *Terraforming Mars* mahai jokora jolastu naiz, Marte konkistatu behar da, ur zonak sortu, basoa erein, proiektuak aurrera eramán; azken batean, planeta bizigai bilakatu. Partida erdian, heldu da ama: Aprobetxatu duzu egun ona? Egin duzu ibilbiderik? Errekan egon zara? Irudiren bat margotu duzu? Informazioa batu? Herria ezagutu?

Afaria prestatu bitartean gerturatu zait B. Auzokoen alabekin egon da jolasean. Pozik dagoela esan dit. Oso pozik. Eskerrak. Eta gehitu:

Ama, ile laburra duten amen artean, ederrena zara, baina bestela ez. Trankil egon, ez da ezer gertatzen. Ados?

Ohera sartu aurretik, berriro egon naiz tarte batean iluntasunari begira; hori baino gehiago: atera naiz terrazara gaueko zerua mirestera. Euriak garbitutako aire hezea arnastera. Ze ondo usaintzen duen. Eta oskarbi dago. Izarrak. Asko. Baten bat mugitu dela iruditu zait. Izar iheskorra! Patua/mina/pertsonaia literarioak aldatzeko aukera.

Beso bat antzeman dut gerrian eta musua buruan. E da. Jarraitu ditu nire begirada eta poza: Abioia da, laztana.

E barrura jarraitu aurretik, besarkatzen dut tripa. Nire buruari agintzen diot ez dudala medizina hartuko, ez dudala mina arinduko, ez ditudala hilekoaren hots goibelak aintzakotzat hartuko.

VI

ZORIONA

- METAFORA:
1. *izena*. Hizkuntza-baliabidea, esplizitu egin gabeko erkaketaren bidez, hitz baten berezko adiera irudizko adiera batera igaroaraztean datzana.
 2. *erreminta*. Pentsamenduaren aukera hitzaren mugak apurtzeko, bazterreko ideiak bereganatzeko.
 3. *hileta*. Hilzorian dagoen baliabidea; hizkuntzaren esanahia malgutu da.

Bilboko Louise Michel. Uxue Razquinek idatzitako *Como decir adiós a una madre* liburuaren aurkezpena. Idazleak aurkezpen mahaiaren alde batean eta bestean. Dolua. Mina. Etsipena. Argazki bat: Uxue Razquin eta ni barreka: zelan egin genuen barre gaia hori izanik?; Literatura zer den galdetu zenidan!

Galdera gehiago egin nituen, euren artean Ortzaizera ekarri dudak korapilo bat: berriro hunkituko gara “elurra bezain zuri”, “marrubi kolorezko ezpainak”, “ibaia memoria da” bezalako esapideekin? Hasierako koordinatuetan kokatu nahi dut nire pentsaera. Aukera izan, maitaleekin antzera, lehen aldia izango balitz bezala muxu emateko, ezagutzeko esapide horiek adierazi nahi dutena.

Tolstoik esana: Familia zoriontsu guztiek elkarren antza dute, baina familia dohakabe bakoitza bere erakoa da. Literaturan mugarri izan den Anna Kareninaren hasierako esaldiak ere badirudi zoriontasuna mugatu duela.

Ursula K. Le Guinek kontra egin zion idazle errusiarri *The Wave in the Mind* saiakeran. Bere buruari galdetzen zion ea Tolstoik familia zoriontsu nahikoa ezagutu zituen XX. mendeko Errusian, eta ea ezagututako familia dohatsu noble, nekazari, klase ertaineko guztiek antzekotasunik zuten.

Urteak behar izan zituen bere buruari Tolstoiren esanak ezbaian jartzeari bermea emateko.
Ursulak errespetatzen zuen Tolstoi. Baina, aukera egon izan balitz, Tolstoik errespetatuko zukeen bera? Ezezko erantzuna ematen dio aipatu saiakeran.

2014, iraila. Iruñea. Walden liburutegia. Lola Nietoren *Alambres* poema liburuaren aurkezpena.
Hainbat institututako ikasleak jende artean. Hainbat poeta euren artean. Galdera txanda:
Zergatik idazten duzu penaz? Dramaz? Minaz? Posiblea da zoriona poeman? Literaturan?
Irri urduria. Ikasle bat besteari begira. Azkazalak gorri ilunez margotuak aspaldi, apurtuak eta
janda. Eserita, hankak gurutzatua, goiko eskumako hankaren orkatilako galtzerdi urdin zabalaren
azpitik, hazka.

Bai, ezta? Baietz esango nuke, behintzat.
Baduzu gomendiorik? Adibiderik?

Momentuan erantzutea espero ez duzun galdera bat ez da erraza.
Lola guri begira. Gu hari. Irri konplizea. Hurrengo galderarako txanda. Trankil, Lola, Tolstoi,
behintzat, ez zitzaion, bada, gaia gehiegi interesatu.

Ortzaize. Etxean. Sabaia. Planta bakarra. Zabala. Egurra. Jolasteko gela. *Jolasteko* gela. B puzzlea
egiten. 200 pieza. Lurrean sakabanatuta, piezei banan-banan buelta eman, musika entzun.
Kanpoan, euria. Kanpoan, oiloen isiltasuna. Babestu dira. Kanpoan Haltzamendi. Handi. Zabal.
Bikain. Burujabe-*Belarjabe/harrijabe/lokatsjabe*.
Barruan, E sofán, garagardo lata irekitzeaz, mugikorrean darabilen xake partidaren mugimendua
pentsatu bitartean. Etxeko kristalezko atera hurbildu, euria entzun, haizea entzun. Bestaldean.
Patata poltsatik bat hartu eta jan, beste bat.
Akaso, zerbait idatzi beharko nuke.
Alabak puzzlea egitean, zoriontasun garden batek besarkatzen nau.
Bihotza, laztana, maitea.

Bakarrik euskaraz dakit maitatzen;

Bikotea, gustura, atsedeen hartzen dagoela jakin, eta lasaitasun sendo batek hartu nau.
Indarra, oinarria, aingura.

Zerbait idatzi beharko nuke, bai; likatsuak ditut eskuak, ordea.

VII

KOORDENATUAK

GEOGRAFIA-AITZINDARIA: 1. *izena*. Metaforaren sorrera.

2. *izena*. Pentsaerari bide egiten dion gidaria.

3. *mapa*. Neuronetan/sabelean/lurrazalean gertatzen diren natura, biologia eta ideiak ondorengo izaki/zuhaitz/ohea kokatzeko nahitaezko oinarri dena.

Keinu bat. Esaterako, lehengusuak bezala, begiak ezkerrera beheratu bistakoa den zerbait esan aurretik, edo, duxara sartu baino lehen, erradiadorearen ertzean kulero zikina zintzilikatu. Eta jakin keinu horrek, esan edo egin behar zuenaren aitzindari, betiko markatu dituela ondoko urratsak. Isilpean, hitz guztien gainetik, lengoaia ororen azpitik, egindako ituna da.

Etiketarik atera eta liburu-dendara idaztera egindako bidea entzun dut. Mungiako liburutegira egiten dudana bidea imajinatu dut. Gustuko dut liburuz babestuta idaztea. Hiru kotxe nahiko arin pasa dira oinezkoak ere ibiltzen garen errepidetik / mugikorrari begira ibiltzen naiz Mungiako espaloietatik. Haizeak lorategi batean dagoen karilloiak jo du / entzuten ditut dendetako soinu-bandak. Ez dut pertsonarik guratzatu / begiak pantailatik igo gabe saihesten ditut besteak.

Ez ditut aurikularrik ipini.

Nahita bilatutako hustasun horretara heldutako musika mugatzea nahiko nuke.

Itxi aurretik, Menta liburu-dendara etorri dira E eta B. Heldu bezain pronto, B puzzleen txokora joan da, aukeratu ditu hirurak. Bat erosi diogu.

Ek aprobetxatu du jengibreko freskagarria probatzeko.

Bitxia da liburu-denda, berezia. Kafetegia ere bada, eta batze puntu bat. Herritarrak. Turistak. Kafe zaleak eta poesia zaleak. Euskara eta frantsesa entzuten dut liburu gomendio eta edari eskarien artean.

Ortzaizen lehen aldiz elkartu ginenean Geuretik Sortuak bekaren harira, konturatu nintzen ez zegoela denda askorik. Lan-herrian kokatuta daude, herriko kanpoaldean. Baina herriaren erdigunean, postetxea, notariotza eta liburu-denda bat besterik ez daude. Ez okindegirik, ezta farmaziarik ere. —Ez dakit zergatik baina beti iruditu zait horiek direla herri txiki batean irekitzen diren lehen saltokiak—.

Beraz, goizean, portatila hartu eta idaztera heldu naiz. Irulegi Irratirako elkarrizketa bat egin dut. Lotu naiz herritar batzuekin eta galdera batzuk egin dizkiet. Egin dudana azaldu ostean, eta horretarako azalpenak batu ondoren, begiratu diot pantailari. Estutasunak hartu nau. Zertan nabil? Kapaza naiz? Ordenagailua batu eta bueltatu gara etxera.

Determinismotik harago bilatzen ditut udako arropetan tolesdura berriak. Sukalde ezezagunean edalontziak bilatzearekin batera, zabaldutako aukerak.

Lagun batek dio oporretan saiatzen dela normalean egiten ez duen zerbait egiten. Lagun berak dio bere alaba kaka egiteko guztiz biluzten dela.

Pentsatu dut egonaldi literario batek masajea egiten dizula portatila piztu aurretik, kirolariari entrenatzaileak nola. Mungian ez dut aukera eguna idazketaren inguruan finkatzeko.

Gogoratu naiz Jorge Carrionekin. Berak dio, egunero, ordu kopuru finkoa eskaintzen diola idazketari. Ez duela inspirazioan sinisten. Eta gogoratu dut, baita ere, Therry Pratchett idazten hasi zenean egunero 400 hitz idaztera behartzen zuela bere burua.

Aurreko egunetan grabatutako audioak entzun ditut. Egindako argazkiak errepasatu.

Arropa kentzen hasi naiz.

Zertan ari zara? Galdetu dit Ek.

Flipatuko zenuke; nik. Komuneko atea itxiz.

VIII

SAIAK/SARIAK/SASIAK

ESPEKTATIBA: 1. *izena*. Zerbait egiteko edo lortzeko desegin beharreko mataza.

2. *emozioa*. Hotsak desegin ezer entzuten ez den toki batean, bazterrak antzemateko itxaropenez.

Sari bat irabazteko itxaropena. Sari batek irekitzen dituelako ateak. Sariak erakutsitako bideak argia duelako. Sariak argitutako espazioa gosetutako belarriz eta ahoz josita dagoelako. Sariak gorpuztutako hitzek jakin-mina/espektatiba ase dutelako.

Edo ez.

Egonaldia egin aurretik jakin dut *Termita* eleberria hautagai dela Euskadi literatura sarietarako gaztelaniazko aukeran. Sari bakarra. Zenbat eleberri egongo dira hautagai? Hamaika. Zenbat idazle esperoan? Bat. Saria bakarra da.

Pentsatu dut hori irabaziz gero, lan-utzialdia egin dezakedala elkartean. Bestelako lan kargarik gabe buruan, idazle jarduna zer den aztertzeke.

Edo ez.

Ortzaizera etorri naiz, egonaldi literarioa egiteko. Gaur, Haizemendira igo gara:

Laburbidea. Iratzeak. Sasiak. Ezagutzen ez dugun animalia baten gorotza. Harri txikiak, bide estua. Hezea. Eltxoak. Eltxo piloa, sudurrean, ilean, lepoan, besoetan.

Ama, aita, ni *pintxolari* naiz. Babestuko zaituztet. Ikusi, ni egonda *pintxoek* ez dizuete minik emango. *Pintxolari* naizelako. Hau zortea zuena: *pintxolari* bat!

Eskuak belarrietara eraman eltxoen, *eltxo mordoan*, burrunba ez entzuteko. Eskuak belarritik kendu B sasetara erortzea saihesteko. Eltxoen burrunbak janda, *pintxolaria* altxatzeko itxaron. Itxaron, eta berriro bideari ekin.

Goian, gailurrik gabeko haranean, ezker pareta bat. Pareta ezker aldean utzi eta apur batean paseoa jarraitu dugu: bidea lurrezkoa da, zenbait harriz osatua; eta sasiek babestua, zelatariek bide inperialari nola.

Ez da ezer entzuten. Ez dago eltxorik. Eskatu diet Eri eta Bri apur batean isil egon gaitezen. Mugikorrarekin grabatu dut isiltasun hotsa. Ezinbestean, gora begiratu dugu, zerua lainotua dago, eta badira hainbat sai inguruka. Ama, zer dira txori horiek? Politak dira. Handiak dira.

Saia: hegazti harraparia, handia, mokoa kakoduna eta burua eta lepoa soilak dituen, batez ere abere hilak jaten dituen —batez ere—. Asko daude. Berrogei baino gehiago. Eta jan egin behar dute. Eta heriotzaz baliatzen dira elikatzeko. Eta beraz, zenbat abere hilda —batez ere— daude putreak ase ahal izateko? Zenbat denbora eman ahal dute jan gabe?

Mugikorrean, bilaketa arin bat egin dut: sai bakarrek, egunean, batz bestek kilo erdi sarraski jan behar du.

Animalia hilak behar dituzte —batez ere—, gorpu bila daude —batez ere—. Zer gertatuko da, haragi ustel nahikorik ez badago? Bakarrarentzako saria al da? Elkarren harrapari izango dira? Esaterako, konplota egin dezakete ahulena jateko? Esaterako, hor, pixka bat aparte, hegaldi borobilaren azkeneko ondulazioan dagoen horri oldartzeko?

Putreak hori ere badira: norberaren mesederako inolako gupida barik egin behar dena egiten duena. Errukirik gabe.

Zer azaldu bost urteko umeari?

Inozentzia babestu.

Burbuila-haurrak hazi.

Ezpainean hozka egin, Juan Kruz Igerabiderekin gogoratuta: “Otsoa ez da otsoa, umearen beldurra da”. Otsoa agerrarazi beraz?

Arnasa bota.

Heriotza maite duten animaliak dira, bihotza; esatear nagoela: Aita, galdera bat; Bai, laztan?; Hartuko didazu hor goian dagoen masusta?; Jakina, maitea.

Beheko bidea errepidetik egin dugu, lokatza, eltxoak, eltxo mordoa, eta sasiak saihesteko asmoz. Ezkerreko bazterrean, euliak. Asko. Eta zerbait handia, grisa, mugimendu gabekoa, makina bat euli azpian. Ez dakit arnasketa urrutitik antzeman dezakedan. Baina irmotasun horrek ez du zalantzarako tarterik uzten: hor dagoena hilda dago.

Katu bat? Galdetu diot Eri; buruarekin ezezkoa egin du, handiegia da. Azkonar bat. Azkonarra! Ikusi dugu gerturatu garenean, Bri erakustera joan naiz, baina eskutik helduta, Ek eta Bk lasterketa egin dute, askaltzera, nor helduko den lehen.

Akaso, hurrengo batean.

IX

FEDEA

ATALASE-KODEAK: 1. *izena*: hizkuntza kuantikoa. Mikroskopikoa. Hitzaren esanahia (uhina) mihi puntara (partikula) heldu aurretik, ahoskatzean, esanahia galtzen duena.

Gurasoen agurraren ostean, bridak kendu dizkiogu inguruari: kaleak kale bilakatu dira, aldapatsuak zein ziprztinduak. Mendiak mendi agertu zaizkigu berriro, berde, marroi, eltxoen, liztorren eta saien bizileku.

Gurasoek alde egin dute eta hori egin du lotsak ere: kendu diogu beldurra gehiegizko/gutxieneko temperaturari, azala erretzeari, ur nahikoa gurekin ez eramateari, freskatuz gero, badaezpadako jertsea ahazteari.

Txorizo eta gazta bokatak eginda kotxean sartu gara, Ainhoa bisitatzeko xedez. Beroa da. Bidean pentsatu dugu igual ez dela ideiarik onena. Leku ospetsua da. Akaso, jendez lepo egongo da, toki turistikoa.

Leihotik at ikusi dut grazia egin didan zerbait: tokiko behiak —Akitaniako blonda behiak— eta txori zuri batzuk —Ardea Ibis—, muturrekoak izan daitezkeen bi izaki, behia (marroi argitsua, handia oso, pisutsua erabat) eta hegaztia (arina, zuri-zuria, txikia) trankil dira, eguzkiaren epelean, gozagarri. Lorategi bitxi baten uzta iruditu zait, atalasearen arnasadunak.

Ainhoako turismo bulegoan jasotako gomendioei kasu eginez jarraitu ditugu beste hamaika turista, gurutze zuriz markatutako bide batetik gora. Prozesio turistikoa suabe-suabe mugitzen da.

Kiroletako arropak eta oihal arinak, zapatilak eta *flip-flop*ak.

Harri txikiak, lurra, zuhaitzak.

Gurutzeek, behintzat, ez dute Kristo gurutzatuta. Ez dakit neurtzen Elizak gurean duen garrantzia. Ez dakit neurtu nahi dudan ere. Ez dakit zergatik lotu dudan gurutzeen irudia Cristina Moralesekin. Aspaldi izan zen Bilboko Gutun Zuria jaialdian. Hamaika gogoetarekin batera esan zuen metaforen bidez soilik lortu ahal zela komunikazio zintzo bat. Hizkuntzak ezarritako limiteak apurtuta, pentsamenduaren atarian sortzen zela baleko adierazpena. Momentu horrek *arima* zuela.

Gurutze zuriei jarraiki egiten dugu gora. Simone Weil ere aritu zen gizakien dimentsio espiritualaz. Zenbat gurutze daude? Hannah Arendtek autoritatea, egiazkoa, fedearekin lotu zuen saiakera batean. Ermitara heltzen ari gara, hilotz batzuk daude, pottokak lurrean etzanda zein belarra jaten ari dira; turistak batekin eta besteekin argazkiak ateratzen. Gorotzak han eta hemen.

Aitak erlijioa (edozein) gorrotatzen du, txikitan akolitoa izan zen Derioko apaiztegian. Ez du askorik kontatu garai hartatik, ez du askorik kontatzen ezeren inguruan, baina erlijioarekiko herra oinordetzan jaso dugu ahizpak eta biok. Erlijioak barik, zerk mamitzen du fedea? Fedea egarri eta gose den izaki bat iruditu zait, hor eta hemen, kristautasunetik ihes, ahora zer eraman bilatzen dabilena.

Azkenik, gurutze zuri askoren bueltan, tenplario agnostikoak heldu gara gailurrera: bero handia. Kremarik ez. Ur gutxi soinean. Gerizpe sakon baten azpian hartu ditugu bokatak. Jatetxerik ez, aire egokiturik ez, zenbait inurri mahaian. Eta iturri bat.

Isilik lotu gara tarte batean. Mugikorra atera eta grabatu egin dut. Mungiara, eraman nahi dut isiltasunen katalogoa.

Bk ura buruaren gainetik bota du eta txorizo zati bat erori zaio lurrera.

Isilik lotu naiz orain ere berari begira. Ez dut grabaketarik eten. Ikasi nahi dut barne hizkuntzaren mugak adierazitako haserrea ahoskatzen.

Trankil, ama, egiten duen beroarekin berehala lehortuko naiz, eta txorizoa animaliatxoren batek jango du, bai?

Bueltan, Ortzaizen, Bk berehala alde egin du auzokideen alabekin jolastera. Egun gutxi falta dira egonaldia bukatzeko. Ek eta biok apenas gurutzatu ditugu bost hitz auzokoekin. Bk, ordea, euren sukaldean egin du dantza.

Hizkuntzaren eta isiltasunaren burrunba buruan dudala, gogoratu dut Elena Casiriainek Geuretik Sortuak bekaren aurkezpenean esan zuela euskaldun izateko modu asko dagoela. Izateko eta egoteko moduak aztergai izan ditut Ortzaizeko egonaldian.

Egunean murtxikatutako ideia guztiak batu zaizkit.

Epifania.

Parabola erlijiosoa zein metafora literarioa. Badut jakintza. Kuantikoa.

Kaiera hartu dut, baina idaztear nagoela, ulertutakoa desagertu egin da.

Lotutako hitzik gabeko tartean, gozo-gozo barreiatu naiz. Ek terrazara atera ditu pernila, gazta, arto ogia eta ardo beltza. Bk jolasten jarraitu du.

Oporrak opor bilakatu dira.

X

ASPALDIKO PROTAGONISTAK

Usadioen erreka da.

Sasoia.

Dagokion denboran, ura atera, besoetan hartu leku batetik bestera pasatzeko.

Dagokion denboran, urtea markatu.

Dagokion denboran, kontserba potoak garbitu; ura bero-bero, asunekin astindu.

Dagokion denboran, *boketa* bat egin, ura berotu, garbitu arropak, garbitu zangoak, txerriei
edateko eman.

Dagokion denboran, txerrien tripak garbitu, —orain ere, errekaen korronteak gogor jotzen duen
toki batean, bakar batek, oinordeko—.

Dagokion denboran, jostaleku.

Haizeak eraman duena.

Sasoia.

Bere garaian heldu eta hau edo hori harekin eraman. Oihaneko arbola batzuk zutik, beste
batzuen adarrak apurtuta.

Bere garaian haizea aldatu eta hura erotu. Beltzez markatu zenbait egun. Aieneka. Nor izango
ote hurrengo ostiraleko ezkilen protagonista.

Bere garaian berotasuna barreiatu. Klima tindatu.

Hego beltzak. Laino beltzak.

Eta euria.

—errekarentzat ura—

Bere garaian urria herioaren hilabetea. Ehiztariak ere, prest.

Bere garaian *giboulée*: martxoko haserrea eta indarkeria.